

2017 URTEA
2018ko aurrekontuak



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ITURRIOTZ

ZENBATGARREN SAIOA : 2

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2016-11-20	19:35	21:05

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Agurtzane Lekuona, Iñaki Pikabea, Eneritz Arbelaitz

Kopurua:

16-30 urte: 4	Emakumeak: 12	Euskaraz: 25
30-50 urte: 11	Gizonezkoak:13	Elebitan:
50-65 urte: 5		
>65 urte: 5		

AKTALARIA: Eneritz Arbelaitz

Gai zerrenda:

GAIA/JUSTIFIKAZIOA

ERABAKIA

1	Aurkezpena	Bileraren egitura aurkeztu da. Zinegotzi taldea aurkeztu da.
2	Aurrekontuak 2018	2018ko aurrekontuen zirriborroa aurkeztu da: diru sarreraren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.
3	2017ko balorazioa	2017ko inbertsioen balorazioa aurkeztu da.
4	2018ko inbertsioak	2016ko eta 2017ko bileretan jasotako eskaeren ondoren eta urtean zehar ikusi diren beharren ondoren, 2018rako herri mailan inbertsio egin beharreko handiak aurkeztu dira. Garrantzitsuena auzoari dagokionez Alzibarrera doan espaloiarengatik. Auzoan egin diren lanak aurkeztu ondoren auzotarrak ekarpenak egin dituzte: Adurizko espaloiarekin kezka agertu da. Zati bat pribatua izanik, eta nagusiak ez baluke salduko zer gertatuko litzatekeen. Azaldu da obra egiteko baimena badagoela eta proiektuan espaloiak kroska izango duenez, orain bezala ezingo dutela kotxeak aparkatzerrenda guztian zehar.
5	Iturriozko lanak	Behoko soroko zebra bidean semafororik jartzea aurreikusten den galdetu da. Puntu beltza, ikastolarako garaian trafiko asko ibiltzen da eta kotxeak abiadura handiarekin ibiltzen dira. Moteltzeko zerbait jarri beharko litzatekeela komentatu dute auzotarrek. Ibarreko proiektuaz galdetu da. Errepidea aldundiaren eskumena

		<p>da. Proiektua idatzita dago dagoeneko, espaloiak egiteko terrenoen jabeekin adostasuna lortu da. Hala ere, Aldundiak obra egiteko ez du zehaztu data edo urterik.</p> <p>Garañora bidean, Olazirako bidean farolak jartzea eskatu zen duela asko eta ea horrako proiekturik egin den galdetu da. Herri bidea da. Estratabururaino argizatuta dago, beste aldea ordea ez dago batere argizatuta. Olazi bidean, oinezko bidean (garai batean asko ibiltzen zen, harriekin eta oso ondo jarrita zegoen, orain ez da jende asko ibiltzen) zulo bat dago eta ez da konpontzen. Oso arriskutsu dago, haurrak ere bertan ibiltzen dira festen bueltan.</p> <p>Epe luzera Aldundiko errepidea zabalduko ote den jakin nahi da. Asfaltatzea ez da nahikoa, autobusak eta auto asko ibiltzen dira. Momentuz asfaltatzea lortu da, asko kostata, ez dago aurreikusita zabaltea.</p> <p>Alcampora joateko espaloia oso gaizki dago, gurpildun aulkiarekin ezin da pasa. ErikaSport azpitik pasatzen den tuneleko espaloia. Informatu egin behar dugu ea eremu pribatua den ala ez eta hala balitz norena den.</p> <p>Bengoetxea plazako zazpi aulkietatik bakarra dago ondo (bi aulki erabat txikituta daude). Zarranbiloa ere puskatuta dago. Barandilaren burniak ere puskatuta daude.</p> <p>Tronpeoko aldapako argiteria eskasa. Bidegorriko kruzean oso gutxi ikusten da. Puntu iluna da. Beste farola pare bat edo fokoa hobeto ajustatu beharko litzateke.</p> <p>Tronpeoko maldako oinezkoen marra ez da errespetatzen, autoak oso azkar pasatzen jarraitzen dute. Segurtasun falta somatzen da ibiltzen. Bidea zabaltea proposatzen da.</p> <p>Ekarpen gunea gainezka egiten ari da. Zerraila hautsita egon da denbora luzez, tarte horretan auzotar askok utzi dituzte hondakinak eta gainezka egiten du. Atea konpondu denean ere auzotarrek hondakinak kanpoan utzi dituzte.</p> <p>Tokia bera ere ez da egokia, traba egiten du kotxea ateratzeko garaian. Txabolaren parean ispiluak jartzea eskatzen da, bisibildaderik ez dagoelako.</p> <p>Atez ateko ordutegia ere ez da errespetatzen. Arauak berriz gogoraraztea proposatzen da.</p> <p>Kale katuak dabilta eta atez ateko hondakinak kuboak/zorroak irekitzen dituzte hondakinak zabalduz. Miñeneko portalean besteak beste. Zintzilikarioak igotzea eskatzen da.</p>
--	--	---

		<p>Xorrolako paradako inguruan zikinkeria handia dago, garbitasunezkoak ez dira pasatzen hortik (zumo potea, plastikoak, kolillak...).</p> <p>Zakar-ontzi "papelera" gehiago jartzea eskatu da. Ozentzio 26-28ko plazonetan zakar-ontzia jartzea eskatzen da, zakur kakena jarri da baina zakarrontzirik ez.</p> <p>Kotxeak abiadura bizian ibiltzen dira Zirauki kalean. Harategitik beherako aldapan rotondarako irteeran abiadura handia hartzen da kotxearekin.</p> <p>Frontoiaren ingurua arriskutsua da. Zebra bidea bidegurutzera gerturatzea posible den galdetu da. Zebrabidea ezin da gehiegi gerturatu bidegurutzera, baina "guardia tumbada" bat jartzea planteatzen ari gara, obrak bukatzean.</p> <p>Rotondan oso abiadura bizian ibiltzen dira autobusak eta kotxeak.</p> <p>Torretxean itotia dago, baldeekin daude.</p> <p>Frontoi ondoko zelaian kirol gunea egiteko eskaera egin zen duela bi urte. Proiekturik egin ote den galdetu da. Legislatura honetan ez dago aurreikusirik honelako proiekturik egitea, beste lehentasunak daudelako beste auzoetan.</p> <p>Sastrakak ez dira ondo mozten Sabada ondoko espaloian eta arratoiak agertzen dira.</p> <p>Ibai bazterra ixten ari da, Kiwiak dauden inguru horretan, Gaetxeren atzean. URari abisua pasatzeko eskatu da. Lurraren jabetza norena den zalantza dago.</p> <p>Herrian untxia asko dabilta, kanposantu inguruan besteak beste. Kexa agertu da.</p> <p>Bizikleta asko ibiltzen dira Sarobe erreka bidean asteburuetan. Istripuak gertatzeko arrisku handia dago eta eskapadak gertatzen dira sarri kotxeen eta bizikleten artean.</p> <p>Estrataburutik txalaka bideean kurba itxu bat dago eta ispilua jartzea eskatzen da.</p> <p>Espaloiak garbitzeko kartzerra pasatzeko eskatu da Bidezarra bidean, Tonkolo inguruan, oso irristakor baitago.</p> <p>Ozentzio 26-28 "Zapata kaja"ren aurreko baranda gaizki pinturarik gabe eta erdoituta daude. Baita Bengoetxea plazaren inguruko barandak ere.</p>
--	--	--

		Torre inguruko parkingean ea ezer egiteko asmorik badagoen galdetzen da. Edo bestela aparkamentu moduan antolatzeko planteatu da. Asfaltatu edo todo uno bota, marrak pintatu. Karabanaz beteta dago orain eremua. Batzuk egun asko daramatzate karabana mugitu gabe. Aipatu da ez dagoela proiekturik bertarako. Karabanekin, berriz, arazoa dago herrian hainbat gunetan. Berez 10 egun baino gehiago ezin da leku berean eduki, baina kontrolatzea oso zaila da.																				
6	Balorazioa	<p>Balorazio orriak bete dira.</p> <table border="1"> <tr> <td>Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak</td> <td>9,15</td> </tr> <tr> <td>Hizlariak: ondo gidatu dute bilera</td> <td>9,05</td> </tr> <tr> <td>Bileran erabili den metodologia</td> <td>8,6</td> </tr> <tr> <td>Herritarren asistentzia</td> <td>6,55</td> </tr> <tr> <td>Herritarren partehartzea</td> <td>8,15</td> </tr> <tr> <td>Saioa probetxugarria izan al da?</td> <td>8,8</td> </tr> <tr> <td>Egunaren egokitasuna</td> <td>8,5</td> </tr> <tr> <td>Orduaren egokitasuna</td> <td>8,55</td> </tr> <tr> <td>Lekuaren egokitasuna</td> <td>8,75</td> </tr> <tr> <td>Denera bataz beste</td> <td>8,46</td> </tr> </table>	Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,15	Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	9,05	Bileran erabili den metodologia	8,6	Herritarren asistentzia	6,55	Herritarren partehartzea	8,15	Saioa probetxugarria izan al da?	8,8	Egunaren egokitasuna	8,5	Orduaren egokitasuna	8,55	Lekuaren egokitasuna	8,75	Denera bataz beste	8,46
Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,15																					
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	9,05																					
Bileran erabili den metodologia	8,6																					
Herritarren asistentzia	6,55																					
Herritarren partehartzea	8,15																					
Saioa probetxugarria izan al da?	8,8																					
Egunaren egokitasuna	8,5																					
Orduaren egokitasuna	8,55																					
Lekuaren egokitasuna	8,75																					
Denera bataz beste	8,46																					

Komunikazio bideak	%
Kartelak	18,8
Prensa/irratia	6,25
Whatsappa	25
Ahoz aho	21,9
Udal aldizkaria	18,8
Internet	9,38